

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jabier Puerta Galdos

*Donostia,
Gipuzkoa
(1927-2017)*

Aurkibidea



Biografia



Donostiako kaian jaio zen, eta bertan bizi izan da beti; adreilu gorriko etxean, Pixepel ondoan. Ama donostiarra zuen, kaikoa. Aita Zarautzen jaioa, baina Donostian bizitua; euskara gutxi zekien. Balantza denda zeukan; 36 urterekin hil zen, gerra bukatu eta gutxira. Jabier-eta lau senide ziren. Muñoaren eskolara joan zen umetan; euskaraz ikasten zuten han. Hamaika urterekin hasi zen arrantzan; aitonarekin, arraunean. Arrantzan jardun zuen erretiroa hartu arte; gerora ere semeari laguntzeko prest egoten zen beti, kaian, familiako itsasontzia lehorreratzen zenean.

Zintak

DON-067

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia - Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2009-07-20
- **Iraupena:** 23 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia

DON-068

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia - Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2009-07-20
- **Iraupena:** 40 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea

DON-082

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2010-02-23
- **Iraupena:** 113 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia
- **Transkribatzailea(k):** Etxeberria, Eider

DON-155

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gallastegi, Maddi
- **Data:** 2013-05-01
- **Iraupena:** 61 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Antxoaren arrantza, Donostia inguruan

- **Erref:** DON-067/012
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:19:44. **Bukatu:** 00:22:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa

Laburpena:

Antxoaren arrantza. Toki finkorik ez zegoen. Gauetz joaten ziren. Argia kandela bat zen. Beldurrez egoten ziren, ontzi handiren batek noiz joko. Nahiago zuten langostetara joan. Bi belarekin ibiltzen ziren.

2. Itsasora ez irteteko eguraldi txarra egitea desira

- **Erref:** DON-068/012
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:11:14. **Bukatu:** 00:12:47
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra

Laburpena:

<p>Bere aita gazterik hil zen eta 13 urte zituela amaren aldeko aitonarekin hasi zen itsasoan lanean. Orduan ez zegoen motorrik eta arraunean joaten ziren itsasora. Eguraldi txarra noiz egingo desiratzen egoten ziren, lotan gelditzeko. Normalean aitona eta biak baino ez ziren itsasoratzen. Batel txikiak ziren ordukoak.</p>

3. Palangrean eta kazan

- **Erref:** DON-068/014
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:13:07. **Bukatu:** 00:14:53
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza motak
- Fauna » Natura » Itsas fauna » Arrainak

Laburpena:

<p>Batel txikiak ziren, 19 oinetakoa zen beraien tamaina. Palangrean aritzen ziren: kabrak, arrain zabala, katuarraina... Kazan ere joaten ziren txitxarroa harrapatzera, kanabera hartuta. Goizez eta arratsaldeztan irteten ziren

txitxarrota. Arratsaldean bostak aldera irten, eta uda garaia zenez, hamaiketarako-edo bueltatzen ziren. Orduan ere arraunean. Txipiroitan goizetan eta ilunabarrean ateratzen ziren. Paneka eta katuarrain asko harrapatzen zituzten. Gaur egun baino arrain gehiago zegoen.</p>

4. Motor gabeko ontziak eta ikatzezeko baporeak

- **Erref:** DON-068/015
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:14:53. **Bukatu:** 00:15:35
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak

Laburpena:

<p>Donostiako kaiko ontzi gehienak batelak ziren, motor gutxi zeuden. Bapore gehienak ikatzezekoak ziren, 18 inguru ziren eta arrantzale guztiak donostiarrak ziren.</p>

5. Arrantzaleak Kaikoak ziren eta patroia joaten zitzaien etxera bila

- **Erref:** DON-068/016
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:15:35. **Bukatu:** 00:16:52
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasoarekiko jarrera
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantzaleen arteko bereizketak

Laburpena:

<p>Patroia etxerik etxe joaten zen kanpanilla jotzen arrantzaleak itsasora joan behar zirela abisatzera. Elkarrizketa garaian zeuden arrantzaleak, aldiz, kanpotarrak ziren. Lehen denak ziren moilakoak bertakoak edo Alde Zaharrekoak.</p>

6. Bateletik motordun barkura

- **Erref:** DON-068/017
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:16:52. **Bukatu:** 00:17:52
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak

Laburpena:

<p>Arrantzan hasi zirenean, batelean, ez zuten sarerik erabiltzen. Baporean hasi zirenean, itsasora irteten, orduan hasi ziren sareak erabiltzen. Espainiako Gerra Zibila bukatu ostean hasi ziren itsasontziei motorrak jartzen, Jabierrek 15 bat urte zituela.</p>

7. II. Mundu Gerran Frantziako kostan sardinetan

- **Erref:** DON-068/018

- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:17:52. **Bukatu:** 00:18:57
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)
- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Berdela, txitxarroa, sardina
- Itsasoa » Arrantzako administrazioa eta legeak

Laburpena:

<p>Jabier motordun itsasontzian lanean hasi zenean, 15 urte zituen eta II. Mundu Gerra zen. Alemaniarrek Frantzia hartua zuten eta alemaniarrek sardinetan aritzea utzi zien beraiei. Ondorioz, oso urte onak izan ziren haiek. Frantziarrei, aldiz, ez zieten uzten. Gaez ez ziren Donibane Lohizune baino harago joaten; izan ere, arriskutsua zen.</p>

8. Urte osoan zehar arraina aukeran

- **Erref:** DON-068/020
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:19:08. **Bukatu:** 00:21:13
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak

Laburpena:

<p>Mutikotan hasi zen arrantzan Jabier. Orduan arraina aukeran zegoen: antxoa, papardo... Neguan marrajua, papardoa, palomita, bisigua... harrapatzen zen. Gero antxoa. Izurdeak antxoa non zegoen seinalatzen zien. Ekainetik aurrera, atuna harrapatzen zuten.</p>

9. Itsasoko ardora

- **Erref:** DON-068/022
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:21:46. **Bukatu:** 00:22:47
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza motak

Laburpena:

<p>Ardora gaez ateratzen da, zurtasuna ateratzen du arrainak eta bistaz igartzen zuten arraina, orduan ez baitzuten inongo aparatirik arraina non dagoen detektatzeko.</p>

10. Majuako arrantza

- **Erref:** DON-068/023
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:22:47. **Bukatu:** 00:23:29
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza motak
- Fauna » Natura » Itsas fauna » Ugaztunak

Laburpena:

<p>Majuan aritzea, izurdeei segika joatea zen. Beraiek ateratzen baitituzte arrainak kanpora. Askotan astebetetz egoten ziren sarea bota gabe.</p>

11. Majuako "konpañia"

- **Erref:** DON-068/025
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:24:00. **Bukatu:** 00:26:01
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa
- Itsasoa » Arrantza motak
- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Berdela, txitxarroa, sardina
- Itsasoa » Arrantzako administrazioa eta legeak

Laburpena:

<p>Majuan aritzea, izurdeei segika joatea da. Izurdeen atzetik joaten zen arrantzalea. Hurbilen zegoen itsasontziak botatzen zuen sarea. Itsasontziren bat gehiago agertuz gero bertara, lehorrean ontzi guztien arteko banaketa egiten zuten, denek zuten eskubide bera. "Konpañia" egitea deitzen zitzaion horri. Sardinetan eta antxoatan egiten zen hori. Sarea botatzerakoan, izurdeak beste majua bat ateratzera joaten ziren.</p>

12. Seriak antxoa jan

- **Erref:** DON-068/026
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:26:01. **Bukatu:** 00:27:19
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Fauna » Natura » Itsas fauna » Ugaztunak
- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa

Laburpena:

<p>Mutil koskorra zela, behin majuan zeudela izurdeek kanpora ateratako arrainak harrapatzekotan, sarea botatzera zihoazela seria pila bat agertu ziren bertan. Beraiek jan zituzten antxoak eta antxoa gabe bueltatu ziren etxera. Seria bale mota bat da.</p>

13. Partilak

- **Erref:** DON-068/029
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:27:53. **Bukatu:** 00:29:13
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Diru kontuak

Laburpena:

<p>Baporean eguneroko bizimodukoa nolakoa zen azaltzen du. Arraina harrapatzen zenean, denak kontentua. Partila, itsasoko soldata, astero banatzen zuten. Erdia patrioiarentzat zen eta bestea arrantzaleentzat, denentzat berdin. Mutil koskorretako partila desberdina zen, gainera beraiek egiten zuten lan gehien. Orduko zaharrak alferrak zirela dio Jabierrek.</p>

14. Mutil koskorretako itsasoko lanak

- **Erref:** DON-068/030
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:29:13. **Bukatu:** 00:30:55
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantzaleen arteko bereizketak

Laburpena:

<p>Itsasoa mutil koskorrek egiten zuten lan gehien. Harri koskorrek batzen aritzen ziren. Harri horiek zertarako behar ziren azaltzen dute. Ontzia ere beraiek garbitzen zuten. Lehen zaharrei errespetu handia zieten. Aparailuak oso ondo zaindu behar zituzten, garrantzitsua zen hori.</p>

15. Larunbatetan patroia etxera partila bila

- **Erref:** DON-068/032
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:31:40. **Bukatu:** 00:32:32
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Diru kontuak

Laburpena:

<p>Partila, itsasoko soldata, larunbatero jasotzen zuten. Ez baldin bazuten ezer arrantzatzen ez zuten ezer jasotzen. Patroia etxean jasotzen zuten dirua. Erdia armadorearentzat eta gainerakoa arrantzalearentzat. Armadorea eta patroia pertsona bera izaten zen.</p>

16. Errazionamendu garaian ogia arrantzaleentzat

- **Erref:** DON-068/033
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:32:32. **Bukatu:** 00:34:04
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasontziko bizimodua

Laburpena:

<p>Errazionamendu garaian, gerraostean, patroiak ogia ematen omen zien arrantzaleei. Ogi hori nolakoa zen azaltzen dute. Frantziarrek nahi beste ogi zuten eta askotan ematen zien beraiei.</p>

17. Arrain gehien Donostian saltzen zen

- **Erref:** DON-068/034
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:34:04. **Bukatu:** 00:35:32
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

<p>Arraina bertan saltzen zuten. Kostaldeko guztiak (Hondarribitik zein Getariatik) bertara joaten ziren, bertan saltzen baitzen arrain gehien. Goizeko zazpietatik moila kamioiz betetzen zen.</p>

18. Arrainari gatza bota eta saldu

- **Erref:** DON-068/035
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:35:32. **Bukatu:** 00:37:06
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

<p>Arrainari tinetan botatzen zitzaion gatza kaxetan jarri aurretik. Zuzenean saltzen zuten, itsasontzitik atera eta segituan. Emakumeak arduratzen ziren salmentaz. Arraina kubiartan ekartzen zuten itsasontzian, gaur egun kaxetan ekartzen dute dena.</p>

19. Arraina deskargatzeko "millotarra" eta baldea

- **Erref:** DON-068/036
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:37:06. **Bukatu:** 00:38:54
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

<p>Saldu aurretik arraina urarekin garbitzen zuten. "Millotarra" deitzen zen saski borobila erabiltzen zuten arraina itsasontzitik lehorrera ateratzeko. Lehorrean balde batetara botatzen zuten, hemezortzi kilotako neurria zuen baldeak. "Millotarra" zumitzezkoa zen eta baldea egurrezkoa. Kantitate handitan harrapatzen zen arraina deskargatzen zuten horrela. Atuna Bretxako arrandegira eramaten zuten eta bertan pisatzen zuten.</p>

20. Emakumeek buru gaineko baldeetan saltzen zuten arrainetan

- **Erref:** DON-068/038
- **Iraupena:** 0:00:25. **Hasi:** 00:39:07. **Bukatu:** 00:39:32
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

<p>Emakume asko aritzen zen arraina saltzen. Baldeetan eramaten zuten arraina, buru gainean. Hainbat balde saltzen zituen emakume bakoitzak, lan asko egiten zuten.</p>

21. Aitak balantza-tailerra zeukan

- **Erref:** DON-082/003

- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:03:29. **Bukatu:** 00:05:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)

Laburpena:

<p>Lau senidetan zaharrena. Aitak balantza-tailerra zeukan San Martin kalean (ikus mapan); konpondu egiten zituen. 36 urterekin hil zen, kartzelatik atera eta bihotzekoak jota. Arreba jaiotzeko zegoen.</p>

Transkripzioa

- Zuek zenbat senide?
- Gu? Nere familiya? Gu giñan hiru mutil eta neska bat.
- Eta zure aitak zertan iten zun lana, arrantzalea zan?
- Ez, zun tailerra berak, beria e? "Talleres Básculas Riatas".
- Básculas?
- "Básculas Riatas". Bere ofiziyua hori zan, baskulak eta balantzak eta konpontzen zitun
- Eta orduan asko erabiliko ziran, baskulak asko erabiliko ziran garai hartan?
- Bai, orduan gutxi zegon, baiño bai. Ta hortan lan iten zun, ta ondo lan iten zun, baiño gerra etorri zan ta oso gazte hil zan aita, hogeita hamasei urtekin o hil zan. Ta zea laga zun etxian... Ni zaharrena, zortzi urte o ez dakit zenbat nitun, o beatzi o hamar o ni zaharrena. ta gero ama miñez gelditu zan, ta akabo. earrak pasa genitun, danangatik. Aita bizi giñala ondo danak, baiño aita gero jun zan ta akabo.
- Ta aita gerran hil zuten?
- Gerran ibildu zan, bueno gerratik zeatu zan. Gerratik etorri, kartzelan sartu zuten, ta handikan puska batea seituan libratu zuten, ta handikan denbora gutxira hil zan.
- Gaixotuta?
- Ez, infarto bat eman ziyon, "angina de pecho" o, han hil zan, etxian sukaldian erori ta zeatu zan. Ni mutil koskorra nintzan ta goatzen naiz. Ta nun arreba jaiotzeko zegon, arreba, jaiotzeko, handik lau hillabete o jaiyo zan arreba.
- Eta nun zeukan denda, balantza denda nun zegon?
- "Calle San Martín. Básculas Riata" zan.

22. Balantzak eta baskulak

- **Erref:** DON-082/005
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:05:59. **Bukatu:** 00:07:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)

Laburpena:

Balantzak eta baskulak egiten zituen aitak. Hamar zentimo sartu eta pisatzeko baskulak kalean. Ama etxeoandrea zen, baina kaiko lan batzuk ere egiten zituen.

23. Tiñak kaiko arkupetan

- **Erref:** DON-082/007
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:07:51. **Bukatu:** 00:08:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

Tiñak egoten ziren arkupetan, arraina gazitzeko. Gero kaxetan jartzen zuten emakumeek, kanpora saltzeko.

24. Aitonarekin txipiroitan

- **Erref:** DON-082/008
- **Iraupena:** 0:03:19. **Hasi:** 00:08:46. **Bukatu:** 00:12:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Txibiak eta txipiroiak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak

Laburpena:

Aitonarekin ibili zen arrantzan, 14 urterekin. Arraunean eta belan. Txipiroiak gauetz. Palangrearekin paneka harrapatzen. Igeldo aldean. Kandela bat eramaten zuten, farola. Aguariñak eta arrainak, txipiroitarako.

25. Haizea zegoenean, belarekin

- **Erref:** DON-082/010
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:13:40. **Bukatu:** 00:14:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Itsasoa » Arrantza motak » Kostaldeko arrantza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Haizea zegoenean bela altxatzen zuten; bestela, arraunean. Beti lo faltan. Aitona zazpietako arrosariora joaten zen.

Transkripzioa

Belan, haizia zegoenian altxatzen genun bela, ta ni desiatzen, tumba iten nintzan. Ta aillatzen giñanian torre gaiñea, igual haizeik ez, ta "benga, altxa!", "aitona, oantxen tumbatu naiz" ta "altxa dagoeneko!". Nik lo nahi, gaztia, beti jolasten, ta beti esaten nun "kaguen! Egualdi txarra daonian, sartuko naiz oyea, ta ez naiz altxako hurrengo urtea arte". Bai, baiño gaztia

ta jolastu nahi, ta gero zea, juten giñan itsasoa ta beti luen falta. Nere aitona, berriz, zazpitako errosaiyoa juten zan afalduta, zazpitako errosaiyoa, hura entzun eta oyea. Joe, gero, labetan o hola altxatzen giñan, hura aspertua zegon lo inda. Ta ni igual hamarrak o hamaikak oyea, ta gero ezin, luen falta beti, luen falta.

26. Muñoaren eskola: Koruko Ama

- **Erref:** DON-082/011
- **Iraupena:** 0:03:49. **Hasi:** 00:14:40. **Bukatu:** 00:18:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

<p>Muñoaren eskolan ibili zen. Lau bizitzakoa zen. Frontoia zuen. Don Migel Muñoa. Ostegunetan Jolastokietara joaten ziren eskolatik. Jaunartzea: zilarrezko duro bana eman zien eta festa egin zuten; zakua gozokiz beteta. Behean eliza zegoen, orain Kaialde zahar egoitza dagoen tokian. Jolasteko gela. Koruko Ama zen eskolaren izena.</p>

27. Gerra etortzean, euskara debekatuta

- **Erref:** DON-082/012
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:18:29. **Bukatu:** 00:21:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Gerra etortzean, itxi egin zuten Muñoaren eskola, eta Ensancheko eskolara joan behar, erdaraz. Don Eugenio Goya maisuak Amuenea tabernan jarraitu zuen eskolak ematen; geroago, Aldamar kalean eta NARRIKA kalean egon zen. Ilea mozten zieten euskaraz egiten zuten emakumeei.

28. Neskak, Elbira Zipitriarekin

- **Erref:** DON-082/013
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:21:03. **Bukatu:** 00:23:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

<p>Muñoaren eskolan mutilak bakarrik; Elbira Zipitriarekin ikasten

zuten neskek. Don Juan maisua. Eugenio Goya fraidea zen. Etxeberria. Liburuak: Martin Txilibitu, Xabiertxo. Egunero ematen zuten meza. Musika irakasten zuten.</p>

29. Eskola amaitzean, arrantzara

- **Erref:** DON-082/015
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:23:41. **Bukatu:** 00:25:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasoarekiko jarrera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Don Eugenio Goya izan zuen azken maisua. Zer ikasi zuen. Aitak ez zion itsasora joaten utziko, biziko balitz. Aitona arrantzalea zen. Harekin hasi, eta gero osabarekin. Itsasontzia zuten, ikatzezko galdara zuena. Getariara joan ziren hiru familia, gerra hasi zenean. Han sartu zirenean, bueltatu egin ziren.

30. Gerra hasi zenean, Getariara ihesi

- **Erref:** DON-082/016
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:25:31. **Bukatu:** 00:28:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

<p>Getariako egonaldia, gerra hasi zenean. Nazionalak han sartu zirenean, bueltatu egin ziren. Gerra nola hasi zen. Rezolako itsasontzia. Gobernu militarretik (ikus mapan) tiroka eta gazteluan kanoia. Gasolindegia ondoan erori zen bonba bat. Santa Mariara joaten ziren ezkutatzera; lo ere bertan.</p>

31. Buelta Getariatik Donostiara, trenez

- **Erref:** DON-082/017
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:28:14. **Bukatu:** 00:30:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Getariatik bueltan trenean, domina jarri behar. Askatasunaren etorbidea militarrez beteta. Bueltan, osabarekin arrantzan. Antxoa, sardina, atuna. Lehen arrain asko zegoen.

Transkripzioa

- Bueltan...

- Getaitik etorri giñanian... Etorzeko zea batzuek zian, txapel gorri bat, zea

bat, insigniya bat bezela, txapel gorriya ta borla horiyakin. Ta hura jarri bihar genun solapan honea etortzeko trenian

- Trenian?

- Bai, trenian, Getaitik etorri giñan trenian. Ta Amaran gelditu giñan, ta handik etorri giñan hiru famili, danak "a ver" ze figura izango gendun. Danak bolsak eta ahal genun gauzekin karriatzen. Pasa giñaninan abenidatikan, joe, abenida dana militarrak zian, han kafe ta [...] hartzen beak, zerbeza edaten ta [...] "gizajuak", esango zun harek, "ijituak bezela datoz e?" Amaratikan etxea, traste guztiyak karrioka.

- Eta zuen etxia ondo zeon?

- Bai, bai, bai, etxia...

- Ez zan iñor sartu?

- Ez, ez.

- Ez zuten prezintatu ta holakorik?

- Ez, ez.

- Beste etxe batzutan hartu zituzten gauzak eta, ez?

- Bai, hartuko zuten orduan txarkeiyak izango zian, beti izaten da; gerra donian beti izaten da aprobetxatzaliak.

- Eta gero arrantzan ze ibiltzen ziñan, osabakin?

- Bai.

- Ta ze harrapatzen zenuten?

- Antxua, sardiña, atuna, danetatik.

- Danetatik?

- Bai, bai, orduan arraiya'de hala zeon. oain bezela ez dao, oain arraiyen billa jun behar dezu. Orduan arraiya etortzen zan honea, asko zeon ta.

32. Umetako jolasak eta bainuak

- **Erref:** DON-082/019
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:30:18. **Bukatu:** 00:32:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekek eta uretako jolasak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

Umetako jolasak. Pilotan beti. Bainatu ere egiten ziren; frantsesek botatako txanponak ahoarekin hartzen. Bainujantzirik ez. Neskak soinekoekin. Hondartzara ez ziren joaten. Gaztelura bai, gaztainak harrapatzera; "Felix gaizto" guarda, makilarekin segika.

33. Baloia lapurtzen ume aberatsei

- **Erref:** DON-082/022
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:33:29. **Bukatu:** 00:35:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>Umetako jolasak. Pilota eta futbola. Aberats jendeari kentzen zizkieten baloiak; neskameak atzetik segika.</p>

Transkripzioa

- Beste jolasik o hola, harrapaketa eta...?
- Jolastu leheno?
- Bai.
- Guk pelotan beti, o futbolian.
- Eta pelota erosi iten zenuten, ala zuek indakua zan?
- Orduan ahal zun bezela. Ni hor pelota izaten zian erosten zanak, baiñon ze pelota? Hasten giñan jolasten ta bukatu baiño lehenuo hautsiyak zeozten pelotan. Ta beti topatzen genun hemen ta juten giñan hor aberats jendia orduan zea juten zan, horrea, bere neskamiekin, ta juten zian baloiyekin ta pelotekin ta guk pelotik ez, ta "bueno listo e? ta benga, segi", batek hartu, bestiai pasa ta bestiai ta [...]. Han etortzen zian neskame guztiyak gure billa.
- Baiña harrapatu ez?
- Ez, batian, zea nun, boda bat o genun, herri txiki batian ez dakit nun zan, ta ezautu ziyan neskamia, orduan serbitzen zeon han, ta gure andriai esaten ziyon, "zerri honek makiña bat pelota ostu digu guri". Neskamia zan, ta serbitzen zegon egun hartan, ezautzen zen, Intxaustikua, taberna Intxausti, hango neskamia zan. Baiño ezautzen zian neri earki harek. Batian andriakin jun nintzan bazkaita nunbaitea, ta bea serbitzen zeon, ta gure andriai esan ziyon: "hau holaku ta hola", ta ni algaraka.
- Orduan gaiztakeri batzuk iten zian.
- Ze gaiztokeri zan? Ez genun ta nunbaitetik atera behar. Haiyek aberatsak zian.

34. Sareak eta saregileak

- **Erref:** DON-082/023
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:35:20. **Bukatu:** 00:36:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak

Laburpena:

Sareak tindatzen, arranpan. Lehortzen non jartzen zituzten. Itsasontzi bakoitzak bere saregileak.

35. Kaiko labaderoa nolakoa zen

- **Erref:** DON-082/024
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:36:26. **Bukatu:** 00:38:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

Labaderoa. Etxe guztietako emakumeak joaten ziren, kalderekin. Ur bila joaten zen umetan. Labaderoa nolakoa zen, dotorea. Dutxa publikoak eta komunak pasealeku berrian zeuden. Argindarra bai, beti izan zuten etxean. Ikatzezko sukaldea.

36. Donostia, arrantza-leku inportanteena

- **Erref:** DON-082/025
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:38:59. **Bukatu:** 00:41:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak

Laburpena:

<p>25-30 bat itsasontzi zeuden lehen, txikiak. Baporezkoen ondoren, motorrarekin. 50 zaldi asko zen. Donostia zen arrantza-leku inportanteena inguruetan; ontziak ilaran kaian sartzeko. Zazpitan hasten zen mugimendua.</p>

37. Antxoaren arrantza

- **Erref:** DON-082/026
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:41:24. **Bukatu:** 00:44:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Nabigazioa

Laburpena:

Antxoa harrapatzen zen gehien. Urte guztian, Garizuman hasita. Topatzera joan beharrik ez. Nola jakin antxoa non dabilen. Sarea nola bota. Ikusmena inportantea zen lehen. Konpasa eta erlojua.

38. Sondaren ordezkordela

- **Erref:** DON-082/029
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:45:25. **Bukatu:** 00:48:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Nabigazioa

Laburpena:

Sondarik ez zegoen lehen; kordela erabiltzen zen. Brazak markatuta zituen. Antxoa oparitu ere egiten zuten. Saltzen ez zena tinetan jarri eta soroetarako

eramaten zuten. Emakume arrain saltzaileak; egunean lau-bost balde saltzen zituzten.

39. Bisigutako arrantza I

- **Erref:** DON-082/030
- **Iraupena:** 0:00:38. **Hasi:** 00:48:12. **Bukatu:** 00:48:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Bisigua

Laburpena:

Bisiguaren arrantza, neguan. Antxoa beitzeko erabiltzen zen; negurako gorde, sotoan.

40. Bisigutako arrantza II

- **Erref:** DON-082/032
- **Iraupena:** 0:04:02. **Hasi:** 00:49:35. **Bukatu:** 00:53:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Bisigua
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsaspeko geografia

Laburpena:

Bisigutan neguan, hotza. Antxoa beitzatu. Apareju bakoitzak 120 amu; martxan botatzen zen itsasoan. Kala onena Exkote, 30 miliara. Aitonak-eta zenbat harrapatzen zuten, sei txalupatan joanda. Aitona patroibilia. Gorputzekoak egitera, karelera. Aitonaren trebezia.

41. Bisigutako arrantza III

- **Erref:** DON-082/034
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:53:43. **Bukatu:** 00:55:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Bisigua
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak

Laburpena:

Tretza, bisigutako aparejua nolakoa den. Buiak. Eskuz jasotzen zen arraina. Despeskatzen. Kaxoiak. Sotoan hiru lagun, aparejua beitzatzen. 50 prestatuta, beti. Bi hilabeteko kostera.

42. Arraina deskargatzeko modua

- **Erref:** DON-082/035
- **Iraupena:** 0:03:01. **Hasi:** 00:55:57. **Bukatu:** 00:58:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

Bisigua nola deskargatu. Xerapioren karroak. Bretxako arrandegira, pisatzera. Antxoa eta sardina kaxetan jartzen ziren; neurria zegoen, 18-20 kilokoa. Neurria nolakoa zen. Milotarrak. Izotza, gutxi erabiltzen zen.

43. Pixonerak eta bentera

- **Erref:** DON-082/036
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:58:58. **Bukatu:** 01:01:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

Lehorreko lanak. Pixonera zer zen. Ontzi bakoitzean emakume bat zegoen salmentak kontrolatzeko, eta kofradiak ere bazituen. Benta nola egiten zen. Arroatan. Juanita Kaperotxipi.

44. Nork bere janari eraman behar ontzira

- **Erref:** DON-082/037
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 01:01:02. **Bukatu:** 01:03:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasontziko bizimodua
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

Lehorreko lanak. Baldeka garbitu behar itsasontzia; bodegatik ura ateratzen, mutikotan. Bakoitzak bere jatekoa eramaten zuten. Atunetara joaten zirenean izan ezik. Ardo barrika eta zahatoa. Orain ez dute eramaten ardorik ontzietan.

45. Partila nola banatzen zen

- **Erref:** DON-082/039
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 01:04:17. **Bukatu:** 01:05:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Diru kontuak

Laburpena:

<p>Partila. Banaketa nola egiten zen. "Txakurrena", 30 arroatik gora harrapatuz gero. (arroa 1= 12.5 kg).</p>

Transkripzioa

- Izaten zan partilla, ez?

- Partilla.
- Eta nola, hori...?
- Leheno izaten zan partilla, lehen, beti izandu da hemen plazan. Oain ya kanbiyatu gauz batzuek. Baiño leheno zan: partia, ehun duro in dezagun kontua, gutxi gorabehera esango dizut, ehun duro. Ehun duro? Berrogeita hamar patroiyentzako, nagusiyentzako, ta beste berrogeita hamar mariñelentzako izaten zan. Gero pasatzen zan hor gauz bat: patroiyak bi parte irabazten zun, ta klaro, diru hura atera behar zan muntoietikan'e bai. Orduan pagatzen zuen armadoriak erdiya, ta beste erdiya patroiyak, nagusiyak.
- Eta hor bazegon txakurrena edo?
- Bai, hura izaten zan, txakurrena izaten zn, behin o bitan bada arrua, hogeita hamar arrua e? Bueno, zea, neurri hoiek. Txakurrena egiteko behar zenun hogeita hamahiru. Hogeita hamar baldin bazian ez zenun txakurrenik. Hortikan gora baldin bazian, bai, hogeita hamahiru o berrogeita hamar o hirurogei. Hiru arrua ateratzen zian zakurrena egiteko, lagun danentzako hori.
- Eta hori ze ematen zan arraia?
- Bai, hiru arrua arrai.
- Banatu iten zan?
- Bai.

46. Partila, patroiaeren etxean

- **Erref:** DON-082/043
- **Iraupena:** 0:00:36. **Hasi:** 01:08:00. **Bukatu:** 01:08:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantzaleen arteko bereizketak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Diru kontuak

Laburpena:

Partila astero egiten zen. Armadorea. Marinelak eskubidea zuen joateko. Patroiaeren etxean.

47. Denbora librean Hernanira dantzara

- **Erref:** DON-082/045
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 01:08:40. **Bukatu:** 01:11:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak

Laburpena:

Denbora librean, sotoan aparejuak egiten. 20 urterekin ez zuen edaten. Astigarragan hasi zen sagardoak edaten. Gaztetan ezin zuen esnerik ere hartu. Sagardoak lagundu zion. Sagardotegiak. Hernanira dantzara, trenean. Ez pagatzeagatik zer egiten zuten. Anekdotak.

48. Alemaniarrek itsasoaren kontrola

- **Erref:** DON-082/046
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 01:11:42. **Bukatu:** 01:13:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Itsasoa » Arrantza motak

Laburpena:

Itsasoan, lehorrean baino hobeto irabazten zen. Zapiarekin antxoa bila. Mojak. Gerra garaian, alemaniarrek zuten itsasoaren kontrola eta frantsesek mugak zituzten. Minak. Gauetz Hendaiara joaten ziren. Sardina.

49. Sardinaren arrantza

- **Erref:** DON-082/047
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 01:13:41. **Bukatu:** 01:15:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Berdela, txitxarroa, sardina

Laburpena:

Sardina nola harrapatzen den. Bodega garbitu eta berriro arrantzara, bustita eta hotzez. Jantziak. Linaza olio.

50. Bandera noiz altxatzen den

- **Erref:** DON-082/048
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 01:15:58. **Bukatu:** 01:17:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Eguraldia, ilargia eta mareak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Kofradia

Laburpena:

Bandera altxatzea zergatik erabaki zen. Eguraldi txarrarekin ezin zen itsasora atera. Seinaleroak. Kofradia.

51. Igandetan ere arrantzan

- **Erref:** DON-082/049
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 01:17:10. **Bukatu:** 01:20:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Itsasoa » Arrantza motak » Harraldeko arrantza

Laburpena:

Jai egunak. Igandetan ere joaten ziren. Aitonak egin ziona behin, lanpernak harrapatzen gustura zebilela. Anekdotak.

52. Atunetako arrantza: ontziko bizimodua

- **Erref:** DON-082/051
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 01:20:07. **Bukatu:** 01:22:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Atuna
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasontziko bizimodua

Laburpena:

Atunetako arrantza. Bi-hiru egunetarako. Orain Azores arte joaten dira, baina lehen gertu. Sukaldea. Marmitakoa beti. Patata, olioia. Orain denetik eramaten dute. Egurra eta harri-ikatzak sukaldean. Ardo kupela. Lo nola egiten zuten.

53. Atunaren arrantza II

- **Erref:** DON-082/052
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 01:22:46. **Bukatu:** 01:25:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Atuna
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak

Laburpena:

Atuna kasan arrantzatzen zuten. 50 kiloko zimarroiak. Eskuak erretzeko arriskua. Kakoekin jo, askatzeko. Txurikinak, arto malutekin. Txistorrak. Pertxalak.

54. Atunaren arrantza III

- **Erref:** DON-082/053
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 01:25:38. **Bukatu:** 01:28:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Atuna

Laburpena:

Atunaren arrantza arriskutsua izan daiteke. Txistorrak. Gizon bat airean igo zen pertxaleraino. Anekdotak.

55. Itsasontziaren atalak eta izenak

- **Erref:** DON-082/055
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 01:28:33. **Bukatu:** 01:31:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak

Laburpena:

<p>Itsasontziaren atalak. Belak: fokia, latina. Egurrezkoak ziren lehen. Non egiten zituzten. "Zoa" zuen izena beraien txalupak. "Divino Corazon de Jesus" eta "Zikuniagako ama".</p>

56. Sirena eta txilina, behe-lainoarekin

- **Erref:** DON-082/056
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 01:31:06. **Bukatu:** 01:33:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

<p>Sirena noiz jotzen zen. Itsasontzi bakoitzak bere tutu hotsa. Benta hasteko, txilina jotzen zuten. Txanela. Behe-lainoa.</p>

57. Otoitzak, apaizak eta bekatua

- **Erref:** DON-082/057
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 01:33:07. **Bukatu:** 01:36:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- Itsasoa » Sineskerak, ohiturak eta erritoak

Laburpena:

Itsasontzi batzuetan errezatzen zen, baina beraiek ez. Sareetan medaila jartzen zuten saregileek. Mezetara joaten ziren igandero. Aitona egunero joaten zen arrosariora. Don Santiago Bereziatua zen apaiza. Zumaiako beste batek dotrina erakusten zuen, eta kaskarrekoak ematen zizkien. Dena bekatua zen.

58. Kaia eta euskara

- **Erref:** DON-082/059
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 01:36:40. **Bukatu:** 01:39:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Itsasoa » Sineskerak, ohiturak eta erritoak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Arrantzaleek euskaraz egiten zuten normalean. Orain arrantzalerik ez dago ia; kanpotar asko dago. Marinelei deitzera joaten zen bera, sokatik tira eginda kanpaitxoaz jotzera. Hika erabiltzen zuten. Zaharrak gogorak ziren.</p>

59. Donostiako euskara eta inguruetakoa

- **Erref:** DON-082/060
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 01:39:20. **Bukatu:** 01:41:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Donostiako euskara eta inguruetakoa. Orioko euskara. Tolosakoa. Euskara garbia. Hondarribia eta Getaria. Aitona Mutrikutik etorria zen; bisigutara etorri eta bertan gelditua.

60. Berdeletako aparejua prestatzen

- **Erref:** DON-082/062
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 01:41:37. **Bukatu:** 01:43:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Berdela, txitxarroa, sardina
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak

Laburpena:

Berdeletarako aparejua prestatzen dihardu. 32 amu eta beruna. Karrete hidraulikoak. Despeskatzea. Berdeletara nora joaten diren. Korapiloa.

61. Amua nola egiten den

- **Erref:** DON-082/064
- **Iraupena:** 0:04:50. **Hasi:** 01:44:50. **Bukatu:** 01:49:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Berdela, txitxarroa, sardina
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak

Laburpena:

Berdeletarako amuak. Korapiloa nola egiten den. Guta. Amu arteko distantzia. Lehengo eta oraingo amuak. Hariak. Amuak.

62. Hegaluzetako amuak

- **Erref:** DON-082/067
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 01:50:10. **Bukatu:** 01:53:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Atuna
- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Beste batzuk
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak

Laburpena:

Atunetarako amua nolakoa den. Malutak. Kolorearen garrantzia. Amu motak. Marrajoa noiz harrapatzen zen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-06-17

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com